



# Lehen Hezkuntza

**1. Moduluaren gida: Irakasle Funtzioa  
DIZIPLINA ARTEKO LANA (DAL)  
EGITEKO GIDA**

**2024-2025**

# AURKIBIDEA

1. Aurkezpena .....	3
2. Arautegia eta salbuestea.....	4
3. Helburuak, gaitasunak eta ikaskuntza-eremak.....	5
3.1. Helburuak.....	5
3.2. Gaitasunak eta ikaskuntza-eremak.....	5
4. Lanaren garapena.....	6
4.1. DAL garatzeko argibideak eta kronograma .....	6
4.2. Entregatzeko txostenak.....	6
4.3. Txostenak egiteko orientabideak.....	7
4.4. AOIa gauzatzeko egoerak edo agertokiak.....	8
5. Ebaluazioa.....	9
5.1. Modulu laneko ebaluazio irizpideak .....	9
6. Bibliografia .....	10
ERANSKINAK.....	132
1. eranskina: ebaluatzeko txantiloia .....	12
2. eranskina: taldearen barne-arauak .....	142
3. eranskina: aktak egiteko txantiloia.....	143

## 1. Aurkezpena

Komunikazioaren eta informazioaren aroan bizi garen honetan, ikusten ari gara nola titulazioak eta ikasketa planak birplanteatzen diren, gizarte-eskakizunei eta Europako proposamen berriei erantzuteko, batez ere. Egoera honek irakasleen hasierako prestakuntza etengabeko berrikuntzan eta irakaskuntza ulertzeko moduen aldaketan oinarritzea dakar.

Lanbide honek etorkizunean prestakuntza sendoagoa eta konplexuagoa eskatuko die oraingo ikasleei, bizi dugun errealitate sozial eta kulturean txertatua, eta "ikasten ikasi" goiburuan oinarritua.

Idea horri jarraiki, Bilboko Hezkuntza Fakultatean, prestakuntza egitura ezberdina hautatu dugu, diziplina-batuketaren aurrean diziplinartekotasuna bultzatuz eta lan individualaren aurrean, elkarlana. Horregatik aukeratu dugu modulu-egitura Hezkuntzako titulazioetarako.

Lauhileko berean ematen diren irakasgaiekin modulua osatzen da; hartara, irakasgai bakoitzak bere eremu akademiko propioa izango du, baina kreditu bat lagako da Moduluko Diziplina Arteko Lana (DAL) egiteko. Kreditu horiek irakasle-taldeak (lauhileko horretan irakasten ari diren irakasleak) gainbegiratu dituzte, eta talde horrek diseinatuko du ikasleek lankidetzan egin behar duten Diziplina Arteko Lana (DAL).

Elkarlanerako ikasketa estrategia didaktiko bat da, eskolak talde txikitan (5-7) antolatzea duena oinarri; talde horietan ikasleek koordinatuta lan egiten dute zeregin akademikoak burutzeko eta dagokien ikasketa garatzeko. Egoera horretan parte-hartzaileen helburuak lotuta daude, eta bakoitzak bere helburuak lortuko ditu, baldin eta besteek berenak lortzen badituzte.

Titulazioko lehen mailako lehen lauhileko honetan irakasleek hiru kasu hipotetiko adostu dituzte, eta ikasleek kasu bat aukeratu dute sakon lantzeko. Horretarako, Arazoetan Oinarritutako Ikasketaren (AOI) metodologia erabiliko da Moduluko Diziplina Arteko Lana egiteko orduan, eta 5 kredituko balioa izango du. Lan hori dagokion irakasle-taldeak gainbegiratu eta ebaluatuko du (ikus, gida honetako 4. eta 5. atalak).

Hona hemen Moduluko Diziplina Arteko Lanaren (DAL) definizioa: AOI metodologia aplikatzea zenbait egoera edo arazoa aztertu eta nola ebatzi daitezkeen ikusteko, eta idatzizko txostena prestatzea metodologia honetan onartutako pausoei jarraituz.

### Testuingurua

Lehenengo modulua, *Irakasle funtzioa* deritzona, Lehen Hezkuntzari dagokion graduako 1. ikasturtean garatzen da, lehenengo lauhilekoan.

Moduluko Diziplina Arteko Lanak (DALak) 5 kreditu hartzen ditu guztira, eta irakasgai hauei dagozkie:

Kreditu 1. Irakasle Funtzioa

Kreditu 1. Hezkuntzaren Soziologia

Kreditu 1. Hezkuntzaren Teoria eta Historia

Kreditu 1. Komunikazio Gaitasunaren Garapena I

Kreditu 1. Eskola-Adineko Garapenaren Psikologia

Lan honen balioa 1,6 puntukoa da.

DAL osatzen duten irakasgaien kredituak	Ikasgai bakoitzak DALari ematen diona	Puntuazioa (10etik)
6 ECTS	1 ECTS	1,6 puntu

Moduluko Diziplina Arteko Lana (DAL) moduluko irakasgai guztien osagaia da, eta egiteko horretan ikasturteko gaitasunak eta titulazioko zeharkako gaitasunak landuko dira. Beraz, ezinbestean egin beharreko lana da. Lana egiteko erabiliko den metodologia Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI) izango da.

**Moduluko Diziplina Arteko Lanak (DALak) jarraibide hauek izango ditu:**

1. Moduluko Lana egiteko ikasle-taldeak lauhilekoaren hasieran osatuko dira eta talde bakoitzari tutore bana izendatuko zaio, eta betiere eman beharreko irakasgaietako baten irakaslea izango da.
2. Lan horren lehenengo fasea 5. eskola-asteen egingo da (urriaren 7tik 10ra) eta bigarren fasea 10. astean izango da (azaroaren 11tik 15ra); bi asteak aurrez-aurrekoak dira. Lauhilekoaren azken asteetan (abenduaren 16tik 20ra) talde bakoitzak lanaren ahozko defentsa egingo du bere tutorearen aurrean eta beste ikaskide batzuen aurrean. Tutore bakoitzaren ardura izango da tutorizatzen dituen taldeekin aurkezpen saioa antolatzea.
3. Lana egiteko, 125 ordu inguru beharko dituzte ikasleek (5 kreditu), 9 astetan banatuta; horietatik 2 astebete (50 ordu) aurrez aurrekoak izango dira eta lauhileko irakasgai guztiek hartuko dute parte, bakoitzari dagozkion eskola-orduetan, bai eskola magistraletan, bai praktiketan. Gainerako orduak ez dira aurrez aurrekoak; nolana ere, lan hori egiteko, ikasle bakoitzak gutxi gorabehera 12 ordu sartu behar ditu astean.
4. Lana egiteko talde bakoitzak gutxienez 2 tutorizazio-saio izango ditu.

## 2. Arautegia eta Salbuestea

Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplinarteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu justifikatutako arrazoiengatik (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, % 33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKeren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan **9. astea baino lehen** (hau barne), eta honek behar dituzten informazioak emango dizkie, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, % 16a irakasgai bakoitzaren kalifikazioan.

DAL horren kalifikazioa ohiz kanpoko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila).

Edonola ere, UPV/EHUko Gobernu Batzarrak 2016ko abenduaren 15ean onartutako araudia aplikatuko da (EHAA, 50 zb. 2017ko martxoaren 13a).

### **DALa egiteaz salbuestea**

1. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango, modulu oso batean matrikulatuta dauden kasuetan izan ezik.
  2. Graduako ikasleek DALa egin beharko dute, baldin eta modulu bateko hiru irakasgaitan matrikulatuta badaude, gutxienez. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute DALa egin beharrik izango.
  3. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren ehunekoa aplikatu gabe.
  4. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteke dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.
- Aurreko kasuetako edozeinetan gomendatzen da moduluaren edo titulazioaren koordinatzailearekin hitz egitea, egoeraren berri emateko.

## **3. Helburuak, Gaitasunak eta Ikaskuntza-emaizak**

### **3.1. Helburuak**

1. Arazo bat aztertzea, AOI metodologia aplikatuz, 1. moduluko irakasgaien ikuspegitik.
2. Idatzizko txosten bat prestatzea, emaitzak eta lan-prozesua jakinarazteko.
3. Irakasle-funtzioaren konplexutasuna aztertzea egoera ezberdinetan.
4. Unean uneko egoera nahiz arazoen aurrean ondo arrazoitutako erantzun hezigarria eraikitzea.
5. Jarrera kritikoak eta arduratsuak izatea irakasle-funtzioari begira.

### **3.2. Gaitasunak eta Ikaskuntza-emaizak**

Lan honen bitartez ikasleek gaitasun hauek garatu behar dituzte, eta ondorengo ikaskuntza-emaizak bereganatu behar dituzte ikasleek.

<b>Gaitasunak</b>	<b>Ikaskuntza-emaizak</b>
1. Irakasle-funtzioaren egoera identifikatzea, aztertzea eta ebaztea.	1.1. Irakasle-lan desberdinak identifikatu ditu. 1.2. Arazoa definitu du modu arrazoituan.
2. Eskola curriculumeko testuen irakurketa eta iruzkin kritikoa sustatzea.	2.1. Testu egokiak aukeratu eta aztertu ditu.

	2.2. Erreferentzia bibliografikoak erabili ditu eta egoki txertatu ditu.
3. Hizkuntzaren ekoizpen eta ulermen zuzena eta egokia erakustea.	3.1. Hizkuntza modu zuzen, egoki, kohesionatu eta koherentean erabili du.
4. Irakasle-funtzioaren dimentsio hezitzailea bereganatzea eta hezkuntza demokratikoa sustatzea.	4.1. Irakaslearen zereginak azaldu ditu. 4.2. Hezkuntza esparru desberdinen artekoen elkarlana adierazi du. 4.3. Proposamenak egin ditu ikuspuntu hezitzaile eta parte hartzailetik.
5. Taldean lan egitea eta modu autonomoan eta lankidetzan ikasteko ohiturak eta trebetasunak hartzea.	5.1. Talde lana garatzeko jarrera aktiboa du eta erantzukizunak bereganatzen ditu.
6. Ikastetxeetako hezkuntza egoerei buruzko gogoeta egitea, berrikuntzak sartzeko eta irakasle-lana hobetzeko.	6.1. Hezkuntza egoerari buruzko hobekuntzak eta proposamenak egiten ditu.
7. Kalitatezko hezkuntza eskaintzearen garrantziaz jabetzea, Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat eginik	7.1 Hezkuntza inklusiboagoa, demokratikoagoa eta justuagoa garatzeko gogoetak eta proposamenak egiten ditu.

## 4. Lanaren garapena

### 4.1. DAL garatzeko argibideak eta kronograma

Faseak	Ikasturteko Asteak	Nork egiten du	
<b>0. Taldearen barne-arauak</b>		Taldeka	<b>Aldez aurretiko ezagutza azaleratzen</b>
<b>1. Agertokiaren aurre-azterketa (ikus 4.4. atala)</b> Egoeraren ikuspegi guztiak aztertu. <i>Zer dakigu egoera honetaz edo gai honetaz?</i> <i>Ezagutzen dugu antzeko egoerarik?</i> <i>Bizi izan dugu antzeko egoerarik?</i>		Bakarka Hausnartu	
<b>2. Agertokiaren aukeraketa</b> Agertoki bat aukeratu aurre-azterketaz baliatuz. Zalantza terminologiko eta kontzeptualak argitu. <i>Agertokian planteatzen den egoera ulertzen da?</i>	<b>5. astea</b>	Taldeka lan egin	
<b>3. Hipotesiak edo teoriak</b> 3.1. Arazoaren definizioa. Arazoa(k) identifikatu. <i>Zerk eragiten du egoera hori gertatzea?</i> 3.2. Arazoari aurre egiteko erantzunak. Identifikatutako arazo desberdinei konponbide posibleak proposatu. <i>Zer nolako erantzuna edo konponbideak dituzte arazoek?</i>	2024/10/07 2024/10/11	Bakarka hausnartu  Taldeka lan egin	
<b>4. Ikerketa gaiak</b> 4.1. Zerrendatu zeintzuk gai ikertuko dituzuen ondorengo galderei erantzuteko. <i>Egoera hori gertatzea zerk eragiten du?</i> <i>Zer nolako erantzuna eman ahal zaio?</i> 4.2. Zereginak eta informazioa bilatzeko aukerak banatu. Lanerako plana diseinatu (Gantt-en diagrama): egin beharreko ataza, nork egin, noizko.	<b>6. astea</b> 2024/10/14 2024/10/18	Taldeka	<b>Ezagutza era sistematiko batean eraikitzen</b>

<b>5. Ikerketa emaitzak</b> Informazioa bilatu, aztertu eta hautatu. Bakarka ikertutakoa taldera ekarri. <i>Taldekieen artean informazio berria aztertu duzue?</i>	<b>7. 8. 9. 10. asteak</b> 2024/10/21 2024/11/15	<b>Bakarka hausnartu</b>	
<b>6. Arazoa konpontzeko esku-hartzea</b> Konponbiderako esku-hartze ekintzak prestatu, ikertutakoa kontutan hartuta. <i>3.2. pausoa egindako ekarpena aldatu da? Zerbait gehitu duzue? Ikuspegi berririk?</i>	<b>11. 12. astea</b> 2024/11/18 2024/11/29	<b>Taldeka lan egin</b>	
<b>7. Ondorio orokorrak</b> Ikasitakoaren eta gauzatutako prozesuaren inguruko balorazioa. Azken Txostena egin eta ahozko defentsa prestatu.	<b>13.14. astea</b> 2024/12/02 2024/12/13	<b>Bakarka hausnartu</b>  <b>Taldeka</b>	
<b>8. Defentsa</b>	<b>15. astea</b> 2024/12/16 2024/12/20	<b>Taldeka</b>	

## 4.2. Entregatzeko txostenak

Bi txosten entregatuko dira, bata Moduluko lehen astea amaitu eta hurrengo astean, **urriaren 15an** alegia, eta bigarrena, lauhilabetekoaren amaieran.

Lehen txostenean atal hauek jasoko dira:

- Taldeko Funtzionamenduaren arauak
- Agertokien aurre-azterketa
- Agertokiaren aukeraketa
- Hipotesiak eta teoriak

Bigarren eta azken txostenean DAL osoa emango da (lehen txostena barne).

## 4.3. Txostenak egiteko orientabideak

Lan horrek unibertsitateko edozein lanek dituen ezaugarriak izango ditu egitura zientifikoari, aspektu formalei eta hizkuntza-egokitasunari dagokiela.

<b>Lan zientifikoaren egitura</b>	<b>DAL lanaren egitura</b>
Azala	Azala
Aurkibidea	Aurkibidea
Sarrera	Sarrera
1. Helburuak / Hipotesiak	1. Kasuaren aukeraketa 2. Ikasle bakoitzaren eta taldearen hipotesia
2. Metodologia	3. Ikerketa gaiak
3. Emaitzak	4. Ikerketaren emaitzak 5. Arazoa konpontzeko esku-hartzea
4. Ondorioak	6. Ondorioak
5. Erreferentzia bibliografikoak	7. Erreferentzia bibliografikoak
6. Eranskinak	8. Eranskinak - Ikasleen auto-ebaluazioa - Taldearen auto-ebaluazioa - Lan-saioen aktak

### Aspektu formalak



- Txostenak 15-20 orrialdeko luzera izango du, erreferentzia bibliografikoak barne.
- Gutxienez, 10 iturri bibliografiko erabili beharko dira
- Eranskinak lanaren gorputzean aipatu eta amaieran gehituko dira (15-20 orrialdetatik kanpo).
- Testua 1,5 puntuko lerro-artearekin idatzita egongo da, eta paragrafoak justifikatuta.
- Letra mota Times New Roman, Arial edo Calibri izan daiteke (12 tamaina).
- Paperak DIN A4 tamainakoa izan beharko du.
- Marjinak 2,5 cm-koak izango dira alde guztietan.
- APA arauak erabili beharko dira, bai testuaren barruan aipuak egiteko bai eta erreferentzia bibliografikoak jasotzeko ere.

### Hizkuntza-gaitasuna

Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean –beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik–, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte. Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna
- Diskurtsoaren ulergarritasuna
- Hiztegia eta ortografia
- Ergatiboa eta komunztadura

Talde hiruheleduneko ikasleek txostena euskeraz egingo dute.

**Plagioa:** Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egin balitz bezala. Ikasleak zitazio APA arauak ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela edo adimen artifiziala erabili dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko.

## 4.4. AOIa gauzatzeko egoerak edo agertokiak

Ondorengo hiru egoeretatik bat aukeratu eta aplikatu Arazoetan Oinarritutako Ikasketa (AOI) izeneko metodologia.

### 1. Egoera: “Gurasoen Whatsapp taldea”

Bizkaiko itunpeko ikastetxe bateko zuzendariak Lehen Hezkuntzako 3. mailako tutoreari, Edurneri, gurasoen kexa bat jaso duela jakinarazten dio. Horien ustez, Edurnek Classroom plataforman zintzilikatu beharko lituzke etxerako lanak eta klasean egiten dituzten jarduera guztiak, beren seme-alaben jarraipena egin ahal izateko eta hobeto laguntzeko, aurreko zikloko irakasleak egiten zuen bezala. Kexa hori gurasoen Whatsapp talde batean sortu omen da, lehenik eta behin ametako baten ekimenez, zeinek taldeko gainerako kideak konbentzitu dituen, nahiz eta denek ez duten horri buruzko iritzirik eman. Edurne, berriz, ez da tresna hori helburu horrekin erabiltzearen aldekoa. Bere ustez ikasleek autonomia handiagoa lortu behar dute agendaren erabilera landuz, euren eginbeharrak antolatzen ikasiz. Edurne haserre eta harrituta dago, horri buruz duen lehen berria delako. Nola kudeatu beharko luke Edurnek egoera hori?



## 2. Egoera: "Ikasle berria eskolan"

Li Xian ikasle berria matrikulatu da eskolan, Lehen Hezkuntzako 5. mailan, D ereduan, eta ikasturte hasieratik egongo da ikastetxean.

Li Xian Beijing-etik etorri berria da gurasoekin batera. Mandarin txineraz hitz egiten du eta ingelesez apur bat ere badaki, Txinako eskolan ikasi zuena. Gurasoek mandarin txineraz baino ez dakite.

Klasean kultur-gutxiengo batzuetako beste ikasle bi daude, baina hauek LH1etik hasi zirenez, ederto moldatzen dira gaur egun bai euskaraz zein gaztelaniaz.

LH5eko tutorea lehen aldiz aurkitzen da halako egoera batean, eta ikaslearentzat ere egoera berria da, beti oso nota onak atera dituelako, baina orain zerotik hasi behar duela jakin badakielako.

## 3. Egoera: "Chromebook-ak bai?"

Lurdes, laugarren mailako tutorea, gaur arduratuta etorri da irakasle gelara eta hauxe esaten die lankideei:

LURDES: Badaramat denbora nahikotxo pentsatzen zein puntutaraino gauden ondo egiten Chromebook-ak hainbeste erabiltzen gure ikasleekin.

PERU: Zer ba?

LURDES: Arreta oso erraz galtzen dutela nabaritzen dut...20 urte daramatzat eskola honetan lanean eta nire inpresioa da gero eta txarrago idazten eta irakurtzen dutela.

PERU: Baina nola jakin dezakegu hori ordenagailu erabilerarengatik dela? Digitalizazioa aurrera doa eta atzean geratzea izango litzateke hauen erabilera ez egitea.

ANDONI: Ni ere ados nago Lurdeseekin. Adibidez, nire klasean Amaiak, badakizue zelako zailtasunak dituen eta arreta askoz errazago galtzen du.

AITANA: Bai, baina ez duzue ukatuko askoz ere motibatuago daudela chromebook-a erabiltzen dutenean.

LURDES: Uf... ez dakit, nik uste dut honek askoz hausnarketa sakonago bat beharko lukeela. Jakin badakit guraso batzuk ez daudela guztiz ados chromebook-en erabilerarekin.

Hurrengo astean klaustro bat egongo da eta erabaki dute Chromebook-aren erabileraren alde eta kontra agertzen diren argudioak azaltzea eta proposamen bat egitea. Horretarako ondo dokumentatu beharko dira gai honen inguruan.

## 5. Ebaluazioa

### 5.1. Modulu-laneko ebaluazio irizpideak

Irakasle-tutoreak ondoko irizpideak erabiliko ditu DALa kalifikatzeko (ikus 1. eranskina):

ZER EBALUATZEN DA	NORK EGITEN DU		
	Irakaslearen ebaluazioa	Ikaslearen auto-ebaluazioa	Taldearen auto-ebaluazioa
<b>Txostena</b>	% 50		
<b>Prozesua</b>	% 10	% 10	% 10
<b>Burututako lanaren defentsa</b>	% 20		

Ikasle bakoitzaren azkeneko nota ondoko bost notetatik eratorren da. DAL gainditzeko derrigorrezkoa da, gutxienez, nota bakoitzaren puntuazio erdia jasotzea. Txostena, aurkezpena eta prozesuari dagozkion hiru atalak gainditu egin behar dira DALa gainditzat eman ahal izateko.

Ikaslearen auto-ebaluazioa eta taldearen auto-ebaluazioa txostenean argudiatuko dira. Horri dagokionez, zenbait zehaztapen:

- Ikaskideek taldekide bat ez gainditzat joko balute, irakasleen eskuetan geratuko da azken ebaluazioa.
- Ikaskideek taldekide bat ez gainditzat jo eta, aldi berean, ikasle horrek berorrek bere burua ez gainditzat joko balu, ez gainditu gisa geratuko da.

## 6. Bibliografia

- Berger, P. L. (1967). *Introducción a la Sociología*. México: Limusa.
- Berger, P. L. (1992). *Soziologiarako gonbitea*. Bilbo: EHU.
- Branda, L. A. (2008). El aprendizaje basado en problemas: el resplandor tan brillante de otros tiempos. In *El aprendizaje basado en problemas: Una nueva perspectiva de la enseñanza en la universidad* (pp. 17-46). Barcelona: Gedisa.
- Brubacher, J. W., Case, CH. W. y Reagan, T.G. (2000). *Cómo ser un docente reflexivo. La construcción de una cultura de la indagación en las escuelas*. Barcelona: Gedisa.
- Day, C. (2006). *Pasión por enseñar. La identidad personal y profesional del docente y sus valores*. Madrid. Narcea.
- Dolmans, D. H., De Grave, W., Wolfhagen, I. H. y Van Der Vleuten, C. P. (2005). Problem-based learning: Future challenges for educational practice and research. *Medical education*, 39 (7), 732-741.
- Etxague, X. (koord.) (2004). *Didaktika Orokorra*. Donostia: Erein.
- Etxebarria, A. y Garay, U. (2013). Komunikazio-gaitasuna: Lehen Hezkuntzako irakaslegaiak trebatzen. EHUko Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordetzaren sare argitalpena. 2017-06-21ean hemendik berreskuratua, hartua  
<https://ikasmaterialak.ehu.es/hezkuntza/komunikazio-gaitasuna>
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. *Tutoretza Lehen Hezkuntzan. Laguntzeko eskuliburua*. 2010-09-13an hemendik hartua, [http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/adjuntos/tutoretza/HASIERA.htm](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/tutoretza/HASIERA.htm)
- Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (2007). *Oinarrizko hezkuntzarako tutoretza-plana egiteko. Orientabideak: lehen hezkuntzako 1. Zikloa*. Vitoria- Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Fiuza, M. J. y Fernández, M. P. (2013). *Dificultades de aprendizaje y trastornos del desarrollo: manual didáctico*. Madrid: Pirámide.
- Garzia, J. (2004). Euskara komunikatiboa, in *Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresua*. 2017-06-21ean hemendik hartua, <http://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua150.pdf>
- Hmelo-Silver, C. E. y Barrows, H. S. (2006). Goals and strategies of a problem-based learning facilitator. *Interdisciplinary journal of problem-based learning*, 1(1), 4.
- Horton, P. B. y Hunt, C. L. (1990). *Soziologia*. Bilbo: EHU.
- Horton, P. B. y Hunt, C. L. (1990). *Sociología*. México: McGraw Hill.
- Hung, W., Jonassen, D. H. y Liu, R. (2008). Problem-based learning. *Handbook of research on educational communications and technology*, 3, 485-506.
- Imaz, J.I. *Hezkuntzaren Soziologia*. Leioa: EHU. 2017-06-24an hemendik hartua, <https://ikasmaterialak.ehu.es/hezkuntza/hezkuntzaren-soziologia>.

- Imbernon, F. (2007). *La formación permanente del profesorado. Nuevas ideas para formar en la innovación y el cambio*. Barcelona: Graó.
- López, F. (2008). *Necesidades en la infancia y en la adolescencia. Respuesta familiar, escolar y social*. Madrid: Pirámide.
- López, F., Etxeberria, I., Fuentes, M. y Ortiz, M. J. (coord.) (1999). *Desarrollo afectivo y social*. Madrid: Pirámide.
- Marchesi, A., Carretero, M. y Palacios, J. (1998). *Psicología Evolutiva*. Madrid: Alianza.
- Neville, A. J. (1999). The problem-based learning tutor: Teacher? Facilitator? Evaluator? *Medical teacher*, 21 (4), 393-401.
- Palacios, J., Marchesi, A. y Coll, C. (1999). *Garapen Psikologikoa eta Hezkuntza-I. Psikologia Ebolutiboa*. Leioa: EHU.
- Papalia, D., Wendkos, S. y Duskin, R. (2009). *Psicología del desarrollo: de la infancia a la adolescencia* (11. ed.). Mexico D.F: McGraw-Hill.

# ERANSKINAK

## 1. eranskina: Ebaluatzeko txantiloia

### Irakasleak ebaluatzeko txantiloia.

Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira. Argudioak koherenteak dira	Txostena ebaluatu % 50
Gaiaren ulermen sakona dago	
Arrazoibidean heldutasuna erakusten da	
Informazio iturrien erabilera egokia da, planteatutako oinarriak sostengatzeko	
Arazoa aztertu da, AOI metodologia aplikatuz	
Taldekide guztiak inplikatu dira lanean	Prozesua ebaluatu % 10
Lan talde kohesionatu gisa aritu dira	
Taldeak partaidetza aktiboaren jarrera mantendu du	
Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu du materiala	
AOIko prozesuko faseak gauzatu dira	Defentsa ebaluatu % 20
Atal guztiak landuta daude eta taldekide guztiak edozein atalez erantzuteko gai dira	
Jariorasunez eta erritmo egokian aritu dira	
Baliabide linguistikoen erabilpena egokia izan da	

### Ikasleak bere burua ebaluatzeko txantiloia.

Taldean partaidetza aktiboaren jarrera mantendu dut (taldearen funtzionamenduan lagundu dut, bilerak prestatzen, entzuten, eztabaidak errazten, dinamizatzen, etab.)	Prozesua ebaluatu % 10
Taldearen eztabaidetan ideia berriak eta aipagarriak eman ditut	
Taldeak burututako bilera guztietara joan naiz esleitutako zereginak eginda	
Esleitutako lana egiteko behar bezainbeste denbora eman dut	
Egiaztatutako iturrietatik kontsultatu dut materiala	
Beti nago irekia taldeko beste edozein kideren kritikak edo iradokizunak entzuteko	

### Taldeak auto-ebaluazioa egiteko txantiloia.

Ideiak modu argian eta zehatzean azaltzen dira. Argudioak koherenteak dira	Prozesua ebaluatu % 10
Gaiaren ulermen sakona dago	
Arrazoibidean heldutasuna erakusten da	
Informazio iturrien erabilera egokia da, planteatutako oinarriak sostengatzeko	
Arazoa aztertu da, AOI metodologia aplikatuz	

Kalifikazioa 0-5 artekoa izango da, irizpide hauekin:

- 0 - Oso eskasa
- 1 - Eskasa
- 2 - Hobetzeko
- 3 - Ondo
- 4 - Oso ondo
- 5 - Bikain

## 2. eranskina: taldearen barne-arauak.

Taldeak funtzionamenduaren barne-arauak ezarriko ditu, aspektua hauek kontuan hartuta:

- Nola bildu informazioa
- Nola banatu lana
- Nola banatu ardurak (bilera koordinatu, akta egin).

## 3. eranskina: aktak egiteko txantiloia.

<b>LAN-SAIOAREN AKTA</b>			
<b>Taldearen izena:</b>			
<b>Eguna:</b>	<b>Lekua:</b>	<b>Hasiera ordua:</b>	<b>Amaiera ordua:</b>
<b>Etorri direnak:</b>			
<b>Koordinatzailea:</b>		<b>Aktagilea:</b>	
<b>Egindakoaren deskribapena eta hartutako akordioak:</b>			
<b>Hurrengo egunerako oharrak:</b>			